

EGOERA LARRIA DA, BAINA ERRITMOA MOTELA MAHAI NEGOZIATZAILEETAN

Birkokapen arautegirik gabe eta lanbide heziketan edukirik gabe jarraitzen dugu Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan.

Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan egoera gogorra bizitzen ari gara ikasturte amaiera honetan. Datorren ikasturterako ikastetxe batzuk itxiko direla iragarri dute iada eta beste zenbaitek kontzertu galera izango dute, lanpostuak galduz. Testuinguru honetan, LABek beharrezko jotzen du birkokapen prozedura sendo bat hitzartuta eta martxan edukitzea, eta gaur gaurkoz, gure ikastetxeetan horrelakorik ez dugula ikusita, presaz mahai negoziatzailea deitzeko eskatu zuen LABek. Atzoko mahai horretarako, ondorengo gai ordena proposatu genuen: 2021eko soldata taulak, birkokapen prozedura eta lanbide heziketa.

Proposatutako gai ordenean sartu aurretik, patronalek, LABen ustez oso kezagarria den jakinarazpen bat egin ziguten tutoretza osagarriari buruz. Hitzarmen berrian hezkuntza etapa guztietarako jasota dagoen **tutoretza osagarria** (65.artikulua) bidezkoa ez dela beraien ustez eta hitzarmen zaharrean jasotan zegoen moduan uzteko asmoz, bide guztiak jorratzeko prest daudela adierazi dute, epaitegiak ere aipatu dituztelarik. Lan harremanetarako kontseiluan (LHK- CRL) adiskidetzeari eskatuta dute iada. **Oso larria** iruditzen zaigu hitzarmenean tutoretza osagarria etapa guztietarako izango dela sinatu ondoren, **orain atzera bota nahi izatea** eta etapa batzuk dagokien osagarririk gabe utzi nahi izatea.

Birkokapen prozedura: akordioa sinatu zutenetik bigarren ikasturte amaierara iritsi gara ia- ia, eta oraindik birkokapen arautegirik gabe jarraitzen dugu. LABentzat premiazkoa zen atzoko mahai negoziatzailean birkokapen arautegi adostu bat izatea, baina badirudi hitzarmenaren sinatzaileak oraindik ez direla ados jartzen kontu honetan ere. Aste honetako ostegunean arautegi adostu bat eta bakarra adosteko saiakera egingo omen dute berriro, eta maiatzaren 21ean Eusko Jaurlaritzarekin jarraipen batzordea omen dute. Zoritxarrez, birkokapen prozedura sinatu zenean, LABek aurreikusi zuen horrelako egoera bat emango zela, ez baitu nahikoa berme patronalak, diru publikoa tartean denean beharko lukeen bezala, gardentasunez eta aukera berdintasunean jardutera behartzeko.

Inolaz ere ezin genuen aurreikusi 2020-21 ikasturtean ikastetxeetako zuzendaritzetan eta komiteetan, bizkokoapen arautegiaren inguruan informazio kontrajarria egotea, urduritasuna eta

tentsioa sortuz langileen artean. Hori berehala zuzentzeko eskaera ere egin genuen. Arazoak- arazo eta ezin adostuak tarteko, maiatzaren 31rako ikastetxeetako batzordeek soberakin, behar eta errelebo kontratuen aktak osatuta eduki behar dituzte, eta gaur- gaurkoz ez dugu hori egiteko jarraibide bateratu zehatzik. Onartezina eta oso kezkarria, bizi dugun egoera kontuan hartuta. Beste behin ere, 2019-2020 ikasturtean egin zen birkokapen lan- poltsa prozesu inprobisatuaren datuak ere eskatu ditugu. Nahiz eta arautegia adostu gabe daukaten, **LAB sindikatua ez da oztopoa izango eta ordezkaritza duen ikastetxeetan gehiengo sindikalak adostu duen prozedura aurrera eramateko; eta gure indar guztiak jarriko ditugu enpleguaren defentsan.**

Lanbide Heziketa: akordioa eta hitzarmena sinatu zenean, lanbide heziketako hainbat eduki negoziagai gelditu ziren. Hiitzarmenean proposamen bat mahai negoziatzaileira ekartzeko helburuarekin, lan batzorde bat osatu zuten sinatzaileek, LAB kanpoan utziz. Batzorde hori sortu zenetik hainbat hilabete eta bilera joan dira tartean, baina mahai negoziatzaileira ez da inongo proposamenik etorri. Patronalen hitzetan, batzorde horretan lan zentroetako formakuntzako orduen inguruan proposamen ezberdinak egin omen dituzte, hitz egin omen da, "negoziatzen" saiatu omen da, baina ez omen dira adostasunetara iritsi. Hau jakiteak LAB sindikatuari **haserre bikoitza** sortu dio eta horrela adierazi genien. Alde batetik, **batzorde hori ez delako negoziatzeko markoa, mahai negoziatzailea baita horretarako tokia**, langile guztien ordezkariek biltzen dituen mahaia, inor bazterrean eta ahotsik gabe utzi barik. Eta bestetik, 2020ko urtarrilean, **LABek proposamen bat jarri zuen mahai gainean** orduen banaketa irregularraren inguruan, ikasketetan laguntzeko ordu- kredituen inguruan, formakuntza ez- arautuaren inguruan,... eta gaur gaurkoz **patronalek ez dio proposamenari erantzunik eman, eta atzoko mahaian ere izkin egin zioten erantzun bat emateari**. Datorren ikasturtea ere ate joko dugu eta lanbide heziketako zentroetan arautu gabe jarraitzen dute afera guzti hauek. **Onartezina!**

2021eko soldata taulak: hitzarmeneko 62.artikuluaren arabera, 2021eko soldata taulak negoziatu behar dira, eta horri eutsiz, LABek ondorengo proposamena luzatu zien patronalei: eroste ahalmena berreskuratzeko bidean, soldata igoerak kolektibo guztietan ematea, bereziki kolektibo feminizatu eta prekarizatuenetan. Patronalek, sindikatu guztion proposamenak entzun ondoren, ikastetxeen egoera ekonomiko zailari apelazioa egin eta aurten igoerarik izatea ia ezinezkoa izango dela esan ondoren, aurtengo taulen proposamen bat egitekotan gelditu ziren. Beraz, berrien zain gelditzen gara.

Momentuz ez da beste mahai negoziatzailearik aurreikusten hainbat gai presazkoak diren arren. LABek lanean jarraituko du ikastetxeetan enpleguaren defentsan eta langileen eskubideen alde.

Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan LAB sindikatuarekin.

ANIMO ETA AURRERA!